



## **AGENDA 2030 IKASTAROA: ESKAILERA BERRI BAT**

### **1. Argudio nagusia: eskailera berri bat.**

2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJHak) premia eta aukera bat dira munduarentzat eta pertsonentzat. Bi kontzeptu horiek -premia eta aukera- eta horien azalpena -eskailera berri bat sustatuko den prestakuntza-programaren bizkarrezurra dira Programaren argudio nagusi gisa garatutako gako hori honela adierazten da:

-Eskailera zaharra: mundua krisian dago.

-Eskailera berria: premia bat dugu... eta aukera bat.

-2030 Agenda, mundu bidezkoagoa, iraunkorragoa, oparagoa eta baketsuagoa den mundu bat lantzeko bidean Nazio Batuek eginiko akordioa.

-2030 Agenda. Munduarentzako eta pertsonentzako premia eta aukera. Euskadiren konpromisoa. Eskailera berria.

## 2. Ikastaroan erantzun nahi diren galderak.

Argudio nagusi hori oinarri hartuta, ikastaroen programak lau galdera nagusi erantzun nahi die:

- Zer da eta zer ez da 2030 Agenda?
- Zergatik da 2030 Agenda aukera bat eta zergatik da eskailera berri bat?
- Euskadiren konpromisoa: nola sustatu GJHak eta nola erabili eskailera berri hori?

## 3. Estrategia pedagogikoa

Ikastaro honetako estrategia pedagogikoak hiru irizpide uztartuko ditu:

- Informazio argia, sintetikoa eta bere ulermen teknikora bideratutakoa ez ezik, bereziki, irudikapen praktikora ere bideratua.
- Solosalldiak eta hausnarketak proposatzea, ikasleek ikasturteko modulu bakoitzean elkarrikeria eta parte-hartzea izan dezaten.
- Ikastaroaren lana 2030 Agendarekin eta GJHeekin hartutako konpromisoak dakartzan ondorio praktikoak eta egingarriak identifikatzera bideratzea.

## IKASTAROAREN EGITURA

2030 Agendari buruzko dibulgazioko prestakuntza-ikastaroa ikastaroaren iraupena 7 ordukoa izatea aurreikusten da, 3 ordu eta erdiko bi saioetan banatuta. Ikastaroaren egiturak honako eskema hau jarraituko du:

**Lehen eguna:** eskailera berria (3 ordu 30 minutu)

- Aurkezpena
- 1.Modulua: Zer den eta zer ez den 2030 Agenda.
- 2.Modulua: Zergatik da 2030 Agenda premia bat? Mundua krisian al dago? Haren eskailera zahartuta al dago?
- 3. modulua. Zergatik da 2030 Agenda aukera bat? Eskailera berria al da?

**Bigarren eguna:** konpromiso bat (3 ordu 30 minutu)

- 4.modulua. Inplikazio instituzionalak eta sozialak.
- 5. modulua. Euskadi 2030 Agendaren Kontratu Soziala.
- 6. modulua. 2030 Agendarekiko konpromisoaren adibide praktikoak.
- Bukaera modulua.